

Comunicado final de la manifestación del 2 de febrero de 2002

**JUNTOS CONTRA LA AMENAZA,
ELKARREKIN ASKATASUNAREN ALDE.**

No entendemos bien lo que está ocurriendo en nuestro país. Vivimos tiempos de incomunicación y desconfianza, incluso de intransigencia, que nos pueden llevar a la desesperanza y al deterioro de esta sociedad, tan necesitada de senderos comunes.

Cada mañana pensamos que hoy será posible un acuerdo, un entendimiento, un sólido y verdadero apretón de manos para fraguar un pacto acogedor, unitario, solidario con quien más sufre. Un sello que nos agrupe a todos contra la agresión, que nos una frente a la cobarde argumentación de la pedrada, frente a la amenaza hiriente, al insulto y a la degradación de las personas. Soñamos con ese acuerdo, que está ahí mismo, al alcance de los dedos, si éstos quieren tocarlo. Se puede llegar a esa meta; sólo necesitamos pedalear, todos y en la misma dirección: a favor de la palabra, a favor de la deseada unidad de todos los que entendemos que hemos de defender incansablemente el latido de la vida y la brisa limpia de la libertad.

Y denunciaremos también cualquier procedimiento abyecto que se sitúe al margen de la ley. No podemos permitir que la violencia de unos pocos agriete el hermoso territorio común que tenemos. Construyamos este edificio entre todas y todos, con los tabiques de la paz y las columnas de la tolerancia.

Cada día recordamos también el sufrimiento acuñado en tantas personas que ya no pueden besar, oír o hablar a sus seres queridos, porque la mentira y el fanatismo de ETA se los llevó al cementerio. Pero queremos rescatarlos del terco olvido porque la necesaria reconciliación de nuestra sociedad no puede obviar el dolor de tanta gente, precisamente para no volver a caer en errores del pasado. No les podemos olvidar. Sería una traición a su dignidad, y también a la nuestra. Todos ellos y ellas estuvieron aquí, y aquí siguen sus recuerdos y nuestro recuerdo.

Todas las mañanas decimos que no, que hoy no habrá dolor, que no tenemos más razones que la sinrazón para vivir resignados ante la violencia. Y como no nos doblegamos ante la intimidación, salimos decididamente a la calle, este lugar común donde cabemos todas y todos, a proclamar que no sólo queremos paz, sino que la paz son los raíles de la libertad y de la justicia.

Algunas noches nos parece que se va el día sin mayores sobresaltos. Pero nos preguntamos si estamos mejor que ayer, porque hoy tenemos entre todos nosotros y todas nosotras a más personas que viven amuralladas, necesariamente custodiadas a causa de unos pocos que, amparados en la mentira, han decidido amargarles la existencia. Si a nuestra vecina, por ser periodista, juez, profesora, ertzaina o lo que sea, los enemigos de la felicidad le enseñan los dientes del espanto, también a nosotros nos llega ese dolor. De este modo, nuestro espacio de libertad se estrecha con cada amenaza y creemos que en esta situación no vale inhibirse, es irresponsable aducir que a mí no me va a ocurrir algo semejante.

La ciudadanía vasca, mayoritariamente, ha sabido y sabe que la violencia no reporta más que sufrimiento y siempre la ha rechazado. Hemos de persistir en esa resistencia pacífica. Por ello decimos "no", con nuestra rebeldía activa a toda violencia y "no" a cualquier imposición, porque creemos en la palabra, porque creemos que la paz es el camino y porque estamos convencidos de que con nuestro firme rechazo a la violencia y con nuestra solidaridad de hoy, estamos construyendo la sociedad tolerante del mañana. Digámoslo juntos, todas y todos. Hay un mañana que empieza hoy mismo.

JUNTOS CONTRA LA AMENAZA, ELKARREKIN ASKATASUNAREN ALDE

Nekez ulertu ahal dugu gure herrian zer gertatzen ari den. Komunikazio eta konfiantzarik gabeko garaietan gaude, zorrozkeria nagusi den garaietan alegia. Kidetasun bideak beharrezkoak diren honetan, itxaropena galdu eta gizartea zimeltzeraino eraman gaitzake egoera honek.

Goizero pentsatzen dugu gaur akordio bat jaioko dela, elkar-ulertze bat, benetako eta sakoneko hitzarmen bat, adostua eta elkartasunezkoa gehien sufritzen duenarekiko. Erasoaren aurka, harrikadazko argudioaren aurka, mehatxu, irain eta pertsonen makurtzearen aurka batuko gaituen ituna, hain zuzen. Horixe gure ametsa: bertantxe dago elkar hartze hori, eskueran, eskuek ikutu nahi izanez gero. Helmuga horretara hel daiteke baldin eta pedalei denok batera eragiten badiegu eta norabide berean: hitzaren alde zein askatasun aratz eta biziaren taupada etengabe babestu behar ditugula uste dugunon batasunaren alde. Legez kanpoko edozein jokaera zital ere salatuko dugu. Ezin dugu onartu gutxi batzuen indarkeriak guztion lurralde eder hau urratu dezan. Bakezko adreiluekin nahiz tolerantziatzeko zutabeekin eraiki dezagun etxe hau, baina guzti-guztion artean.

Egunero pertsona askok jasandako sufrimenduaz gogoratzen gara: dagoeneko ezin diete hitz egin, entzun edo laztanik emon beren inguruko kuttunei, ETaren doilorkeriak eta gezurrak lurpera eraman zituelako. Guk, alabaina, tematia den ahanzturatik atera nahi ditugu; izan ere, gure gizartearen ezinbesteko errekonziliazioarekin batera, hainbaten sufrikarioa aintzat hartu beharko da, berriro bide-bazter berean jausi ez gaitezen. Ezin ditzakegu ahaztu. Beren duintasunean saldukeria litzateke, baita gurean ere. Haiek guztiak hemen izan ziren, eta hementxe darraite euren eta gure oroimenek.

Goizero esan nahi dugu ezetz, gaur ez dela oinaze gehiagorik izango, indarkeriaren aurrean ezin gaitzkeela makurtu; hortaz, zirt edo zart guztiona den kalera irten eta bakea aldarrikatzen dugu, baita bakea justizia eta askatasuneranzko bidea dela ere.

Batzuetan, gauez, eguna ustekabe gaiztorik gabe doala dirudi. Baina geure buruari galdetzen diogu ea hobeto ote gauden: gero eta pertsona gehiago hormatuta, lepozainduta bizitzera beharturik daude, banaka batzuek euren bizimodua ozpindu nahi dutelako. Gu guztioi ere eraso egiten digute gure ondoko bizilagunari mehatxua egiten diotenean. Kazetari, epaile, irakasle, zinegotzi, ertzain edo dana dalakoa izateagatik ondokoari izua eta iraina botatzen diotenean, denoi botatzen digute. Honela guztion askatasuna murriztuz doa. Dagoeneko ezin gaitzke kikildu, ezin dugu esan niri horrelakorik tokatuko ez zaidanik.

Euskal herri-hiritarrok ondo dakigu indarkeriak sufrimendua baino ez digula ekarri eta beti gaitzetsi egin dugu. Bide bakezale horri eutsi beharko. Hau dela eta, ezetz diogu edozein bortxakeriari, ezetz diogu edozein ezarkeriari, hitzean bertan sinisten dugulako, bakea bidea dela uste dugulako eta gainera, indarkeriari bizkar emanda eta gaurko elkartasunaren bidez, biharko gizarte tolerantzia gauzatzen ari garela uste osoan gaudelako. Esan dezagun denok batera, denok elkarrekin. Bihar egunero hasten delako.

Bilbon, 2002ko otsailaren 2ak